



Arartekoaren 2021R-1075-20 Ebazpena, 2021eko irailaren 13koa. Horren bidez, Bilboko Udalari gomendatzen zaio, adierazitako parametroen arabera, TAOren araudia hausteagatik jarritako salaketa bat ezeztatzeko ordaindutako zenbatekoa itzultzeko eskaera ebatz dezala, eta interesdunari itzul diezaiola aipatutako zenbatekoa gehi dagozkion berandutze-interesak.

Aurrekariak

1. XXX andreak Arartekoaren esku-hartzea eskatu zuen, Bilboko Udalak 30 euro itzul ziezazkion, adierazi zuenez, akats baten ondorioz ordaindu baitzuen TAOko zaindari batek bere ibilgailuaren aurka jarritako salaketa baliogabetzeko, araututako eremuan aparkatzeko gaikuntza-titulurik ez zuelako (salaketa-zenbakia: XXX).

Kexagileak ziurtatu zuen ibilgailuak bazuela gaikuntza-titulua, eta "BilbaoPark" aplikazioaren bidez lortu zuela, jagoleak salaketa jarri zuen ordu berean.

Adierazi zuenez, TAOren arreta-telefonoan artatu zuen pertsonak, salaketaren berri izan zuenean harekin harremanetan jarri zenean, esan zion Udalari jakinaraziko ziola gorabehera artxibatzeko, jarduketa hori eta aparkatzeko baimena ordu berean egin zirela egiaztatu ondoren.

Era berean, adierazi zuen, bere etxean zegoela, aplikazioaren historikoa kontsultatzean, nahi gabe egin zuela klik salaketa ezeztatzeko aukeran, eta automatikoki aktibatu zuela aukera hori berak nahi izan gabe.

Interesdunak erakunde horri emandako informazioaren arabera, salaketa bertan behera uzteagatik nahigabe ordaindu zuen zenbatekoa itzultzeko eskatu zuen, eta "BilbaoPark" aplikazioan lortutako salaketa eta aparkatzeko baimena aurkeztu zituen, baina Mugikortasun eta Jasangarritasun Arloko Herritarrentzako Arreta Zerbitzuak jakinarazi zion arloko zerbitzu juridikoek ezin zutela salaketa ezeztatu, azalpen gehiagorik eman gabe.

2. Kexa izapidetzeko onartu eta aztertu ondoren, Arartekoak Bilboko Udalarengana jo zuen azaldutako gaiei buruzko informazioa eskatzeko. Halaber, eskatu zion jakinarazteko zergatik uste zuen ezin zela onartu kexagilearen eskaera, baldin





eta, zirudenez, salaketa "BilbaoPark" aplikazioan aparkatzeko baimena lortu zuen ordu berean egin bazen.

Eskaerari erantzunez, Mugikortasun eta Jasangarritasun Arloak erakunde honi jakinarazi zion dagozkion ikerketak egiten ari zela kexagileak salaketa jarri zenean aparkatzeko titulu gaitzailerik ba ote zuen egiaztatzeko, eta, hala izanez gero, bidegabe sartutakoa itzultzearen aldeko txostena emango zuela.

Udalak, era berean, Ogasun Sailaren txosten bat bidali zion erakunde honi, salaketaren ondoriozko zehapen-prozedura izapidetzeaz arduratzen zena. Txostenean adierazten zen arlo horrek ez zuela inolako zehapen-prozedurarik izapidetu salaketaren ondorioz, hura ezeztatu egin baitzen, eta interesdunak egindako salaketa ezeztatzeko ordaindutako zenbatekoa itzultzeko eskaera izapidetzeko eskumena Mugikortasun eta Iraunkortasun Arloari zegokiola uste zuela.

3. Udalaren erantzuna jaso eta lau hilabete baino gehiago igaro ondoren Mugikortasun eta Jasangarritasun Arloak egindako jarduketei buruzko informaziorik jaso ez zuenez, Arartekoak berriro jo zuen Udalera, egindako ikerketen eta, hala balegokio, horien ondorioz egindako jardueren berri eman ziezaion.

Bigarren lankidetzaz-erakunde horri erantzunez, Mugikortasun eta Jasangarritasun Arloak erakunde horri jakinarazi zion ez zela bidezkoa eskatutako itzulketa; izan ere, TAO sistemaren datu-basean jasota zegoenez, salaketa "BilbaoPark" aplikazioan dagoen tiketa lortu aurrekoa zen.

Hala ere, informazioan ez zen daturik ematen datu-basean jasota zeuden eta Udalak kontuan hartu zituen jarduketa horien orduari buruz, salaketa aparkatzeko baimena lortu aurretik egin zela ulertzeko.

Era berean, ez zen azaltzen nola zitekeen TAO sistemaren datu-basean informazio bat agertzea, aparkatzeko baimenarekin eta kexagileak erakunde horri emandako salaketarekin gezurtatua, eta, adierazi zuenez, Udalarari ere eman ziona. Bi dokumentuek erakusten zuten salaketa jarri zen ordu berean lortu zuela baimena kexagileak, eta ordu horretantxe bidali ziola aplikazioak baimen-egiaztatzea posta elektronikoz.



Arartekoak aipatutako dokumentuak bidali zizkion Udalari. Adierazi zion, halaber, salaketa jarri eta aparkatzeko baimena ordu berean lortu bazen, bi agirietatik ondorioztatzen zen bezala, bertan behera geratu zela administrazio horren arrazoi bakarra, interesdunari salaketa ezeztatzeke errore baten ondorioz ordaindu zuen zenbatekoa ez itzultzeko.

Era berean, adierazi zion, beste azalpenik ezean, erakunde honek ez zuela inolako arrazoirik ikusten Udalari interesdunaren eskaera onartzea eragotz ziezaiokeenik.

Gogorarazi zion, azkenik, Mugikortasun eta Jasangarritasun Arloak hasieran erakunde honi jakinarazi ziola kexagileak salaketa jarri zenean aparkatzeko titulu gaitzailea zuela egiaztatuz gero, eskatutako itzulketaren aldeko txostena emango zuela.

Bestalde, Mugikortasun eta Jasangarritasun Arloak bere informazioan aipatu zuen salaketa bertan behera uzteak berekin zekarrela, Trafiko eta Aparkamendurako Ordenantza (TAO) delakoaren 69. artikulua arabera, alegazioak egiteari uko egitea, eta alegazio horiek egin ezean alegazio horiek jarri gabekotzat jotzea, bai eta zehapen-prozedura amaitzea, zehapena administrazio-bidean irmoa izatea eta bide hori agortzea ere.

Ordainketa murriztuaren legezko ondorioei buruzko aipamenak behartu zuen erakunde hau zehaztera, bere iritziz, interesdunaren eskaera okerreko diru-sarrerak itzultzeko eskaera bat zela, eta hala izapidetu behar zela, eta ez zehapen-prozeduran egindako alegazio batzuk.

Arartekoak aipatutako balorazioa helarazi zion Udalari, horren inguruan bere iritzia adierazteko, eta jakinarazteko prest zegoela salaketa ezeztatzeke ordaindu zuen zenbatekoa interesdunari itzultzeko, baldin eta, bidali zion dokumentazioaren arabera, salaketa eta aparkatzeko baimena ordu berean lortu baziren, eta bi jarduketan arteko ordu-aldea zen administrazio horrek itzulketa ez eskuratzeko eskaintzen zuen arrazoi bakarra.

Hirugarren lankidetzaren eskaera horri erantzunez, Mugikortasun eta Jasangarritasun Arloak Arartekoari jakinarazi dio, arlo horretan dauden datuak berriro aztertuta, aurreko jakinarazpenaren edukia berresten duela eta besterik ez duela.





Gogoetak

1. Bizkaiko Zergei buruzko martxoaren 10eko 2/2005 Foru Arau Orokorrak, Bizkaiko Toki Ogasunak arautzen dituen araudian ezarritako baldintzetan lurralde horretako toki-erakundeei aplikatzekoak, xedatzen du zerga-administrazioak bete egin behar dituela arau horretan ezarritako eduki ekonomikoko betebeharrak, besteak beste, zehapenak ordaintzean Ogasun Publikoan bidegabe egindako diru-sarrerak itzultzea (1., 29. eta 31. artikulua).

Foru arauak xedatzen duenez, zehapenak ezartzeko egintza irmo bihurtzen bada, egintza berrikusteko eskatu ahal izango da, erabat deusezak diren egintzak berrikusteko, errebokatzeko, akatsak zuzentzeko eta arautzen duen berrikusteko errekurtso berezia jartzeko prozedura berezien bidez (229. artikulua, 224. eta 246. artikuluei dagokionez).

Era berean, bidegabeko sarrerak itzultzearekin batera, dagokion berandutze-interesa ordainduko da. Interes hori bidegabeko ordainketa egiten den egunetik itzulketa jasotzeko eskubidea aitortzen duen erabakia hartzen den egunera arte sortuko da (31. artikulua).

Arauak itzulketarako eskubidea aitortzeko prozedura arautzen du, berrikuspen-prozedura berezi gisa konfiguratzeko dena, eta itzulketarako eskubidea, prozedura horren arabera ez ezik, eskubidea eratortzen duen administrazio-egintza batean ere aitortzeko aukera jasotzen du (224 eta 229 artikulua).

Bidegabeko diru-sarrerak itzultzeko foru arauan ezarritako prozedura abenduaren 27ko 228/2005 Foru Dekretuan garatzen da (14. artikulua eta hurrengoak).

Bizkaiko Toki Ogasunein buruzko abenduaren 16ko 9/2005 Foru Arauak, bestalde, bidegabeko diru-sarrerak itzultzea berrikusteko prozedura berezi gisa jasotzen du (12. artikulua).

Hala egiten du Bilboko Zergen Kudeaketari, Bilketari eta Ikuspenari buruzko Ordenantza Fiskal Orokorrak ere, Bizkaiko Zergei buruzko Foru Arau Orokorrari eta itzulketa-prozeduraren erregulazioa aplikatu behar diren gainerako xedapenei eta zergapekoak ez diren zuzenbide publikoko diru-sarrerei buruzko gainerako alderdiei dagokienez (1. eta 62. artikulua eta hurrengoak).





2. Trafikoari buruzko araudiak arau-hausteari legez dagokion zehapenaren zenbatekoa ehuneko 50 murrizteko aukera ezartzen du, baldin eta salatutako pertsonak bere borondatez ordaintzen badu, unean bertan edo alegazioak aurkezteko epean. Bilboko Udalak adierazi duen bezala, bide hori aukeratzeak esan nahi du uko egiten zaiola alegazioak egiteari eta, aurkeztuz gero, aurkeztu gabekotzat jotzen direla, bai eta prozedura amaitzen dela berariazko ebazpenik eman beharrik gabe, administrazio-bidea agortzen dela eta zehapena irmo bihurtzen dela bide horretan (Trafikoari, Ibilgailu Motordunen Zirkulazioari eta Bide Segurtasunari buruzko Legearen testu bategina onartzen duen urriaren 30eko 6/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 93. eta 94. artikulua).

Aparkaldi mugatuko araubideak (TAO) arautzen dituzten udal-ordenantza batzuek, halaber, beren aplikazio-eremuan salaketak ezeztatzeiko aukera espezifikoak jasotzen dute, ezartzen duten zenbatekoa borondatez ordainduz, borondatezko ordainketa murriztuaren ondorio berberekin.

Hori da, Udalak erakunde honi eman dion informazioan adierazten den bezala, Bilboko Trafiko eta Aparkalekuen Ordenantzaren (TAO) kasua (68. eta 69. artikulua).

3. Arartekoaren ustez, TAOko zaindari batek, gaikuntza-titulurik gabe aparkatzeko eremu arautuan aparkatzeagatik, "BilbaoPark" aplikazioan aparkatzeko baimena lortu zuen ordu berean, bere ibilgailuaren aurka jarri zuen salaketa ezeztatzeiko akatsagatik Udalak ordaindu zuen zenbatekoa itzultzeko interesdunak egin zuen eskaera Ogasun Publikoek bidegabe egindako diru-sarrerak itzultzeko duten betebeharraren esparruan kokatzen da, ez da zehapen-prozedurako salaketaren aurkako alegazio-idazki bat.

Aurrekarietan azaldutakotik ondorioztatzen denez, hala ulertu bide zuen, gainerakoan, Udaleko Ogasun Sailak kexari buruzko informazioan, eta Mugikortasun eta Iraunkortasun Arloak ere bai, erakunde horri eskaini zion lehen informazioan hitzez hitz aipatu baitzuen kexagileak bidegabeki sartutakoa itzuli behar zela.

Mugikortasun eta Jasangarritasun Arloak erakunde honi eman dion informazioan borondatezko ordainketa murriztuaren ondorioei buruz egiten diren aipamenak direla-eta, nolahi ere, zehaztu behar da ezen, lehen aipatu den bidegabeko diru-sarreraren itzulketa arautzen duen araudiaren arabera, zehapen bat





administrazio-bidean irmo egiteak ez duela eragozten bidegabeki sartutakoa itzultzea.

4. Aurrekarietan agerian geratu da, halaber, Bilboko Udalak Arartekoari salaketa baliogabetzeagatik ordaindu zuen zenbatekoa kexagileari ez itzultzeko eman dion arrazoi bakarra aparkatzeko baimena lortu baino lehen egin zela salaketa.

Adierazi den bezala, kexagileak erakunde honi aurkeztutako salaketak eta aparkatzeko baimenak, antza denez, bat zetozenak Udalari itzultzeko eskaera justifikatzeko eman zizkionekin, erakusten dute salaketa interesdunak baimena lortu zuen ordu berean egin zela.

Udalak ez dio Arartekoari jakinarazi zenbat ordu behar izan dituen salaketa jartzeko eta aparkatzeko baimena lortzeko, salaketa interesdunak aparkatzeko baimena lortu aurretik egin zela adierazteko. Ez du argitu, ezta ere, nola litekeen sistemaren datu-basean jasota geratzea salaketa lehenago egin zela, kexagileak aurkeztutako bi jarduketek dokumentuek, Udalak zalantzan jarri ez dituenak, erakusten badute ez zela hala izan eta bi jarduketak ordu berean egin zirela.

Era berean, adierazi behar da Udalak ez duela inoiz zalantzan jarri salaketa bertan behera uztea eragin zuen akatsa, kexagilearen arabera.

Azpimarratu behar da, azken batean, Mugikortasun eta Jasangarritasun arloak berak hasieran jakinarazi ziola erakunde honi kexagileak salaketa jarri zenean aparkatzeko titulu gaitzailea zuela egiaztatzen bazuen, bidegabe sartutakoa itzultzeko eskaeraren aldeko txostena emango zuela.

Hori dela eta, Arartekoak berriro adierazi behar du Udalari helarazi zion balorazioa, ulertzen baitu interesdunak aurkeztutako dokumentazioak bertan behera uzten duela administrazio horrek kexagilearen eskaera ez onartzeko duen arrazoi bakarra, eta, dituen datuekin eta bestelako azalpenik ezean, ez duela inolako arrazoirik ikusten interesdunari salaketa ezeztatzeke ordaindu zuen zenbatekoa itzultzea eragozteko.

5. Administrazioaren jardura juridiko oro dagokion prozeduraren bidez gauzatu behar da [EKren 105.c) artikulua]. Prozedurak eta bere baitan egindako jarduketa guztiak dokumentu bidez jasotzeak bermatzen dute hartzen den erabakiaren egokitasuna eta legezotasuna, bai eta interesdunek dituzten





eskubideak errespetatzea ere, besteak beste, hura eragin duten arrazoi zehatzak ezagutzea eta horien aurka egitea, kausaren berri izanda.

Administrazioak bere egintzak arrazoitzeko duen betebeharra Espainiako Konstituzioaren 9.3 artikulua bermatzen dituen segurtasun juridikoaren eta botere publikoen arbitrariotasunaren debekuaren printzipioen ondorio da, eta, era berean, konstituzio-testuak ezartzen duen administrazio-jardunaren legezotasun-printzipiotik eratorritako eskakizuntzat jo daiteke (103 EK artikulua). Hala adierazi du Auzitegi Gorenak (2010eko urriaren 15eko epaia, 6. oinarri juridikoa, 5190/2010 Jurisprudentzia Bilduma Ofiziala eta 2011ko maiatzaren 3ko epaia, 2. oinarri juridikoa, 2486/2011 Jurisprudentzia Bilduma Ofiziala, besteak beste).

Erakunde honek Udalari gogorarazi behar dizkio aipatutako konstituzio-eskakizunak; izan ere, emandako informazioaren arabera, ez dirudi kasu honetan legez ezarritako prozedura jarraitu denik, ezta interesdunaren eskaera ebazten duen administrazio-egintzarik eman denik ere. Era berean, ez dirudi eskainitako motibazioa eskakizun horietara egokitu denik.

Arrazoitzeari dagokionez, adierazi behar da kexagileari emandakoak ez duela uzten jakiten zergatik ulertu zuen Udalak une horretan bere eskaera juridikoki ezin zela onartu. Gainera, badirudi arrazoi hori ez datorrela bat Arartekoari helarazi zaionarekin; izan ere, horren arabera, gogorazten dugu ukatzea egitatezko kontu baten ondorio dela, hau da, salaketa kexagileak aparkatzeko baimena lortu aurretik egin zela, eta ez ezintasun juridiko baten ondorio.

Aurrekoari gehitu behar zaio Udalak ez diola erakunde honi jakinarazi zer ordutan egin zen salaketa TAO sistemaren datu-basearen arabera, ezta zer ordutan lortu zen aparkatzeko baimena. Era berean, ez du argitu nola den posible datu-basean jasota egotea kexagileak aurkeztutako dokumentazioan gezurtatzen duen informazio bat. Azkenik, ez du azaldu zergatik uste duen salaketa aparkatzeko baimena lortu aurretik egin zela, aipatutako dokumentazioa kontuan hartuta.

Nolanahi ere, Udalak azken alderdi horiek argitu ez izana deitoratu behar du Arartekoak.

Horregatik guztiarengatik, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak -erakunde hau sortu eta arautzekoak- 11.b) artikuluan ezarritakoarekin arabera, gomendio hau egiten diogu Bilboko Udalari





GOMENDIOA

Ebaztea, aipatutako parametroen arabera, kexagileak TAOren araudia hausteagatik jarritako salaketa (salaketa-zenbakia: XXX) ezeztatzeko ordaindutako zenbatekoa itzultzeko eskaera, eta aipatutako zenbatekoa gehi dagozkion berandutze-interesak itzultzea.

